

LIMOSNATXO BAT

[Pedro Mari Otaño](#)

(Zizurkil, Gipuzkoa, 1857 – Rosario, Argentina, 1910)

1/ Mutil koxkor bat itsuaurreko zuela aldamenean, /gizon burusoil, bizarzuri bat bi makuluren gainean, / kale-izkinan ikusi nuen inora ezin joanean; / eta bera nor zen jakin nahian inguratu nintzenean, / limosnatxo bat eskatu zidan Jainkoaren izenean.

2/ Zerbait emanaz galdetu nion, ahal zen modu onenean, / jaiotzatik al zeukan ala gaitzak hartua mendean; / erantzun zidan: «Ez, semea, ez; nik sasoi nuenean, / ez nuen uste iristerik honetara azkenean... / Gaur limosna bat eskatzen dut Jainkoaren izenean».

3/ Eta segitu zuen esanez: «Lehengo gerrate denean / ni aurren xamar ibiltzen nintzen beti edo gehienean, / nekatu gabe aise igoaz aldaparik luzeenean; / ez zen burura asko etortzen gu hala genbiltzanean, / gero limosna eskatzerik Jainkoaren izenean.

4/ Odolak bero eta burua harroa dagoenean, / edozein moduz sartzen da bat halako itsumenean; / atsekabe eta negar saminak badatoz ondorenean; / nolabait batek bizia uzten ez duenean, / limosnatxo bat eskatu behar Jainkoaren izenean.

5/ Inoiz pentsatzen nire artean ni jartzen naizenean, / gaur ere asko direla joango lirakekeenak zuzenean, / ez luke inork sinistuko zer pena ematen didan. / Ai!, horrela nintzen ni ere sano eta gazte nengoenean... / Gaur limosna bat eskatzen dut Jainkoaren izenean.

6/ Ai!, txorakeria asko egiten da zentzurik ez denean, / sinistu ezazu ur hau pasatua daukanaren esanean; / hobeago da sasoi den arte saiatzea lanean, / negar eginez ibili gabe gero denbora joanean, / limosnatxo bat bildu ezinik Jainkoaren izenean».

ZAVALA, Antonio [bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille] (1993). [Pedro Maria Otaño eta bere ingurua I](#). Sendoa. Donostia: Auspoaren Sail Nagusia. (381-382).